



EPAITEGIEK ARRAZOIA EMAN DIOTE STEE-EILAS SINDIKATUARI.

2009ko abuztuan Hezkuntza Departamentuak 16 lanpostu eskaini zituen Haur Hezkuntzan, ingeles profilarekin, interinoek har zitzaten. Abuztuaren 19ko ekitaldian ez zegoen profil egokia zuen hautagairik, eta hurrengo egunean telefonoaren bidez atxikitu ziren hiru plaza. Departamentuak Magisteritzako ingeleseko espezialitatekoei eskaintzea erabaki zuen. Honela eginda, ez zen bermatzen plaza hartzen zuen pertsona Haur Hezkuntzan habilitaturik izatea, eta hau, gure ustez garrantzi handikoa da.

STEE-EILASek gorako helegitea aurkeztu zuen 2009ko irailean, eta Administrazioak berak atzera botatu zuen. 2012ko maiatzaren 9an helegite berria aurkeztu genuen, administrazioarekiko auzi-prozesua, eta gure argudio nagusia zen Administrazioaren jokabideak talka egiten zuela Nafarroako zein estatuko legediarekin. Bestelako aukerak jorratu gabe, lehentasuna eman zion ingelesaren ezagutzari, Haur Hezkuntzako espezialitatearen titulazioaren beharra baztertzuz.

Bi urte beranduago, administrazioarekiko auzi-prozesuetarako 1. Epaitegiak honako epaia eman zuen: Departamentuak eginiko ebazpenak ez zetozen bat legearekin. Era berean, STEE-EILASen argudioak ontzat eman zituen, eta 2009-2010 ikasturteko esleipenak bertan behera utzi ditu. Administrazioak epaiketaren kostua bere gain hartu behar du.

Epaia honela dio: "Departamentuak hartutako aukera ez zen bakarra, eta Haur Hezkuntzako irakasleentzako errespetuzkoena, eta titulazio exigentziarekin, plazen profila alde batean uztea zen". Departamentuak plaza hauek " Haur Hezkuntzako irakasleei eskaini behar ziren, eta horretaz gain ingeles espezialitateko bakante kopurua ugaltu, laguntzaren kalitatea handitzeko eta Haur Hezkuntzako ordu lektiboak gehitu, Haur Hezkuntzako irakasleei lagunduz eguneroko lanetan"

Jakin badakizu ezin direla zuzendu 2009-2010 ikasturteko Haur Hezkuntzako esleipenak, baina epai honen garrantzia handia da, **garbi uzten baitu Departamentuak oker jokatu zuela**, eta Haur Hezkuntzan – ingeles profilarekin – izangairik ez badago, **espezialitateak garrantzia handiagoa du profil linguistikoak baino**: " titulazioaren baldintza ezin da baztertu bestelako bideak agortu gabe"

Epaia honek balio moral handia du gure ustez, STEE-EILASek ingelese irakasteko programen inguruan, eta, irakasleek izan beharreko titulazioan erabiltzen dituen argudioak ontzat ematen baititu.

Departamentuak, beste behin ere, aurrera darrai bere asmoekin, eta bestelako ebazpenak eman ditu epaia esandakoaren kontra aritzeko aukerak bilatuz.

Haur Hezkuntzako irakasleek, eguneroko jardunean erabiltzen duten hizkuntza edozein delarik ere, etapa horretan aritzeko titulazio egokia behar dute izan. Hizkuntza maila egokia ez da nahikoa ikasleen beharrei erantzuteko.